# ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Ikastetxea:** | *IKAS BIDEA* IKASTOLA I.P.I. | **Kodea:** | 010012 |
| **Etapa:** | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | **Zikloa/Maila:** | DBH-1 |
| **Arloa/Irakasgaia:** | ERLIJIO KRISTAU KATOLIKOA | | |
| **Osatutako arloak/irakasgaiak** | | | |
| **Diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak** | D1. Hizkuntza zein literatura-komunikaziorako gaitasuna.<br>D2. Matematikarako gaitasuna.<br>D3. Zientziarako gaitasuna.<br>D4. Teknologiarako gaitasuna.<br>D5. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.<br>D6. Arterako gaitasuna.<br>D7. Konpetentzia motorra.<br>D8. Izpiritualitaterako konpetentzia. | | |
| **Irakaslea:** | A.ORIBE AGINAKO «*abetto*» | **Ikasturtea:** | 2022-23 |

| **Zeharkako konpetentziak** |
|---|
| Z1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.<br>Z2. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako gaitasuna.<br>Z3. Elkarbizitzarako gaitasuna.<br>Z4. Izaten ikasteko gaitasuna.<br>Z5. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko gaitasuna. |

| **Helburu orokorrak** | **Ebaluazio-irizpideak** |
|---|---|
| **Kontzeptuetan:**<br><br>**1**. Pertsonen nortasuna jorratzeko giza prozesuaren gakoa ezagutu.<br>**2**. Giza balioen garrantzia heltze prozesurako jakin, amodioaren balioak duen bere osotasunari aurre eginez.<br>**3**. Pertsonen heltze prozesuan giza ereduen garrantzia ezagutu, *JXt*oren proposamena ere aurkituz gaurko bizitzarekiko.<br>**4**. Gizadiaren historian emandako erlijio gertakariaren garrantzizko esperientziak ezagutu.<br>**5**. Gure euskal kulturaren osagai erlijiosoarekiko begirunea eduki beste kulturekiko erlazioa aurkituz.<br>**6**. Erlijio Nagusiekiko oinarrizko ezagutza izan. | **Kontzeptuetan:**<br><br>**1. GIZABANAKOAREN ETIKA:**<br>Giza nortasunaren formakuntza eta Giza balioen ekarpena (duintasuna, askatasuna, amodioa eta justizia) baita Giza ereduen erreferentzia ere (Kristau ereduak besteak beste) aurkitzea.<br><br>**2. ERLIJIOAK MUNDUAN eta HISTORIAN:**<br>Gaurko animismoa (aintzineko Euskal Herriko erlijioa barne) eta Europako kultur mendebaldarra (Mesopotamia, Egipto, Grezia eta Erroma) jorratutako erlijio-ekarpena aurkitzea.<br><br>**3. ERLIJIOekiko JARRERAK**: Gaur egungo Erlijio nagusiak (Ekialdekoak: Hinduismoa eta Budismoa, eta Liburukoak: Judaismoa, Kristautasuna eta Islama) zein Erlijio |

| | |
|---|---|
| **7**. Norberaren erlijio ingurunea ezagutu beste ikaskideekin batera.<br>**8**. Gaurko erlijio gertakariaren osagaien funtsa aurkitu bera ezagutzeko bideak erabiliz.<br><br>**Prozeduretan:**<br><br>**1**. Erlijio eskoletan elkarbizitza egokia lortzeko lan egin.<br>**2**. Ikasgelatik kanpoko ekintza osagarrietan parte hartze egokia izan.<br>**3**. Gure eskoletarako eskura dituzten baliabide guztien erabilpen egokia (drive, email, classroom, whatsapp, erlijo liburuxka, ordenagailuak) lortzen saiatu.<br><br>**Jarreretan:**<br><br>**1**. Ikasgelako kideekiko hurbilpena izateko joera landu eta partekatzeko gogoa adierazi.<br>**2**. Eskoletan zein kanpoko ekintzetan ere bere ekarpenak partekatzeko erabakia hartu. | gertakariarekiko Sinesdun (Sasiak-Benetakoak-Sektak) eta Ez-sinesdun (Agnostizismoa-Ateismoa-Indiferentismoa) pertsonen jarrerak bereitzen jakitea.<br><br>**Prozeduretan:**<br><br>**1. <u>IKASLEAK BERAK</u>** <u>parte hartze zuzena</u> izatea emaitzetako ebaluazioetan.<br>**2. <u>ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA OSAGARRIAK:</u>** parte hartze zuzena izatea elkarbizitza zein elkartasun arloetan.<br>**3. <u>HEZIKETA-PROZESUAREKIKO AUTONOMIA</u>:** urratsaz urrats bere buruaren jabetasuna bereganatzeko oinarrizko metodologia jorratzeko saiakera egitea.<br><br>**Jarreretan:**<br><br>**1.** <u>Ikaslea bera **HARATAGO** joaten saiatzea (norbanako ekimena)</u> <u>bere heziketa prozesuan.</u><br>**2**. Erlijio Heziketa eskolarra-irakasgaiarekiko jarrera **era askean** adierazten ikastea. |

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuak, ikaskuntza-metodoa eta ebaluatzeko irizpideak zein arazo egoera].

- **<u>EDUKI DENBORATUAK</u>:**




- **1.EBALUAZIOA: «GIZABANAKOAREN ETIKA»**

-Giza nortasunaren formakuntza
-Giza balioen ekarpena (duintasuna, askatasuna, amodioa eta justizia)
-Eta giza ereduen erreferentzia

- **2.EBALUAZIOA: «ERLIJIOAK MUNDUKO HISTORIAN»**

-Gaurko animismoa

-Euskal animismoa

-Europako kultur mendebaldarra (Mesopotamia, Egipto, Grezia eta Erroma)

- **3.EBALUAZIOA: «ERLIJIO NAGUSIEKIKO GIZA-JARRERAK»**

-Munduko erlijio nagusiak (Ekialdekoak: Hinduismoa eta Budismoa, eta Liburukoak: Judaismoa, Kristautasuna eta Islama)

-Erlijio gertakariarekiko giza-jarrerak: sinesduna (benetazkoak, sasizkoak eta sektak) eta sinesgabea (agnostikoak, ateoak eta indiferenteak)

- **METODOLOGIA:**

**-IKAS-UNITATE-DIDAKTIKOAK:** *Ikas prozesuaren sakontze bidea*

**I- ZER DERITZOZU ?** Ikasle ta Ikastaldearen abiada.

**II- BA AL DAKIZU ?** Irakaslearen irakaspenak.

**III- ETA ORAIN ZER ?** Ikas prozesuaren balantzea.

**-ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA OSAGARRIAK:**

**I- ELKARBIZITZA:** Ikasleon arteko harremanak.

**II- ELKARTASUNA:** Besteekiko harremanak.

**III- BURUJABETASUNA:** nortasun aukeraketa.

**-IKT:**

Barne autonomia (Word-P.Point-Email-JPEG) sustatu.

**-IKOOPERATIBOA:**

Lan talde dinamika sortu elkar aberasteko.

- **BALIABIDEAK:**

- **ESKOLAK:** Erlijio Heziketa Eskolarreko Ikasle-Testu liburuxka berezkoa honako lotura zuzenekin: Eskola 2.0-baliabideak (**WhatsApp + Classroom**) eta Informatikako tresnak (WWW.garenok.org) zein Elkartasun eta Elkarbizitza ekintzetarako lan fitxak.
- **EKINTZAK:** Done Jakue Bide arabarra, Herritar partehartzea, Estibaliz-(Andoilu-Arkaia-Berri ona)erako Txangoa, Ikusiz ikasi, Gasteizko Museo Sakroa + Faroletakoa, Elkartasun Egitasmoa, Meskita gasteiztarra eta Zuia(Jugatxi-Oro-3.adinekoak)rako Txangoa.

- **EBALUAZIO TRESNAK:**

- **KALIFIKAZIOAK:** Ebaluazio bakoitzean Ikas-Unitatearen arabera egindako guztia kontuan hartuko da azken kalifikazioa osatzeko, ikasleak ere parte hartze zuzena izango duelarik.
- **EMAITZA:** egindako lan guztiarekin honako portzentaia da ikasle bakoitzak erabaki beharko luke bere buruari eman beharreko kalifikazioa, azken hitza irakaslearekin batera hartuz, hots, "**KONTZEPTUAK: %33'33 + PROZEDURAK: %33'33 + JARRERAK: %33'33**".
- **URRATSAK:** honako lau izaten dira ikasleak eman beharrekoak: Laburpen ESKEMAK irakasleak zuzenduta azken birpasa gisa (1), FROGA bakar bat non konpetentziak lantzeko xedea duen (2), TESTetako hutsuneen ZUZENKETA (3) eta EMAITZA KALIFIKATZEKO OHARRA edo FITXA (4)






EMAITZA kalifikatzeko OHARRA

* ZURE GAITASUNAK-KONPETENTZIAK *

I-KONTZEPTUAK (ikasitakoa):

A-Komunikatzeko eta izpiritualitaterako gaitasunak ........ ...... + ......

B-Testak+Frogak ........ ......

II-PROZEDURAK (egindakoa):

A-Pentsatzeko eta Norbera izateko gaitasunak ........ ...... + ......

B-Jarduerak+Ekintzak ........ ......

III-JARRERAK (saiatutakoa):

A-Elkarbizitzarako eta Ekimenerako gaitasunak ........ ...... + ......

B-Jokaerak+Asmoak ........ ......

EMAITZA: BATAZ BESTEKOA: (I+II+III = ..... /zati 3 = .....)

-ZURE IZENA: ..................... -DATA: 2022/..../..... -AZKEN NOTA: ......

-ZEURE IRADOKIZUNA (ezinbestekoa da betetzea):

13

- **EBALUAZIO-ONDORIOAK:**

- Ikasturteko ebaluaziorako banakako lan berezia jorratzeaz gain, ekaineko azken ebaluaziorako banakako lan egokia zuzenduko litzaioke emaitzetan kale eginez gero.

- **ARAZO EGOERAK:**

Ikasleon Gurasoen partehartze zuzena eskatuko litzaieke bertan behera gera ez daitezen.

- **DONE JAKUE BIDE ARABARRA** (DBH-1/2)

  Beste ikastetxe ezberdinetako ikasmail berdineko ikasleekin batera oinez eginbeharreko zati arabarra egitea ohiko baliabide guztiekin batera (kotxea, hamaiketakoa...).

- **ESTIBALIZerako txangoa** (DBH-1)

  Gabonak baino lehen bizikletaz jorratu beharreko bidean hauetxek dira geltokiak: Gasteizko SALBURUAko "Berri ona", ARKAIAko "ate ireki"-etxea, ANDOILUko adin gutxiko hezkuntza-zentroa, baita ESTIBALIZko erlijio eta gizarte gertakaria.

- **ZUIA Bailarako txangoa eta MESKITA gasteiztarra** (DBH-1)

  Udaberriaren atarian honako lekuak dira ezagutzekoak: JUGATXI eta ORO santutegiak, Murgiako lekaimeen adinduen EGOITZA bisitatu eta Gasteizko musulmanen MESKITA bat ezagutu guzti hauetan giza-topaketan oinarriturik.

## OHARRAK

- DBH-1. Ikasmailan ikastalde zein ikaslearen prestaketa pertsonala izaten dira xedeak geroko ikasmailetako zereginak era egokian eraiki ahal izateko. Bai teknologia-tresnen erabilpen autonomoan bai lan kooperaziozko lanean ere funtsezko urratsak ematean datza erronkarik handienetarikoa, elkarbizitza eta elkartasunezko ekintzeetan partehartzearekin batera.

- ERLIJIOko ikasmailetako GURASO-BILERAK ikasturte honetan ere ezinbestekoak izango dira EHEko programazioaren berri izateaz gain euren partehartze zuzena zertan datzan ikus eta erabaki dezaten.

## RESUMEN EN CASTELLANO

- En el Classroom de Reli de vuestro hijo/a tenéis colgado junto a esta programación su traducción resumida al castellano. Para cualquier consulta conmigo, bien según el horario que tenemos designado en nuestro DAE o bien por Whatsapp podemos quedar sin ningún problema.